



ALBOAN

Hezkidetzeta Euskadin y Guatemalan: aurrerapausoak eta erronkak berdintasunezko mundu baten alde

2015ko abendua, Ciudad de Guatemala eta Bilbao

Finantzatzen du:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. “Hezkidetza” kontzeptuaren definizioa	4
3. Testuinguruaren deskribapena	
3.1. Nola sortu zen genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren aldeko hezkuntza Guatemalan?.....	5
3.2. Baterako hezkuntza Euskadin.....	8
4. Baterako hezkuntzaren aurrerapenak eta erronkak Guatemalan eta Euskadin	
4.1. Guatemala, bazterketa historikoak gainditzen.....	12
4.2. Baterako hezkuntza Euskadin.....	15
5. Ikasitako irakaspenak	22
6. Ondorioak	24
7. Baliabide bibliografikoak eta sare-baliabideak	25

1. Sarrera

“Arrazakeriagatiko, generoagatiko edo sexuagatiko indarkeria eta beste diskriminazio eta indarkeria molde batzuk ezabatzerik ez da izango, kultura aldatu ezean”.

Charlotte Bunch

ALBOANen, hasiera-hasieratik hartu dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure jardunaren ardatz gisa. Genero berdintasunaren aldeko apustu horrek sustrai sakonak ditu gure erakunde nortasunean, eta hortik eratortzen da etorkizun justu bat lortzen laguntzeko gure konpromisoa, pertsona orok izan dezan eskubidea eta aukera inolako diskriminaziorik gabe bere ahalmen guztiak garatzeko eta bere nortasuna erabateko askatasunaz eraikitzeko. Gure orain arteko ibilbidean egiaztatu dugunez, Iparraldean nahiz Hegoaldean, emakumeek eta gizonak ez dituzte garapenerako aukera berberak, eta nabarmenak dira harremanen hierarkizazioa eta batzuen eta besteen gizarte posizioen berdintasunik eza. Ildo horretatik, gure jarduera guztian funtsezko zeharlerroetako bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren aitortza eta genero berdintasunarekiko konpromisoa.

Era berean, hezkuntza formalaren arloan lan egitearen alde agertu da ALBOAN, hasieratik bertatik, hezkuntza formala esparru ezin aproposagoa eta guztiz beharrezkoa baita, gure ustez, etorkizunean herritartasun global, arduratsu eta konprometitua eraikitzeko. Hala, gure helburua da ikastetxeek balioetan oinarrituriko hezkuntza zeharlerro modura txertatzea beraien curriculumean, kausa justuetan eskola-komunitate modura esku hartzea eta gizarte aldaketan dagokien erantzukizuna beren gain hartzea. Era berean, apustu hori aurrera eramateko, ezinbestekoa da hezkuntza sektorearekiko aliantza sendo bat egitea, elkarrizketa irekia eta konfiantzan oinarritua garatu ahal izateko irakasleekin eta zuzendaritza taldeekin. Ezinbestekoa da, hain zuzen ere, irakasleek herritartasun global, aktibo eta arduratsua eraikitzeko gure ametsa partekatzea, haiek baitira ikasleengan, ikasgelan eta ikastetxean aldaketa prozesuak abian jartzeko eginkizunaren protagonista nagusiak.

Abiapuntu horretatik, gure buruari galdetu genion nola lagundu lezakeen ALBOANen moduko GKE batek hezkidetzan oinarrituriko eskolak eraikitzen, egitura formalari nahiz hezkuntza ikuspegi eta jardunari dagokienez. Eta halaxe erabaki genuen azken urteetan herritartasun globalaren alde egindako lanari jarraipena emango zion proposamen bat lantzea, gure ahalegin guztiak hezkidetzara bideratuta, oraingo honetan.

Erronka horri erantzuteko, barne mailako lantalde bat sortu genuen, ALBOANek hezkidetzari loturiko gaietan egindako aurretiko lana eta dokumentazioa azter zezan. Alabaina, gure ibilbidea aztertzeaz gainera, erabakigarria iruditzen zitzaigun zeregin honetan lanean urte asko daramatzaten beste hainbat instituzio eta erakunderengandik ikastea. Eta, era berean, garrantzizkoa zen, gure ustez, ez egitea bide hori guk bakarrik, baizik eta munduko hainbat tokitan gure ibilbidea partekatzen duten erakundeekin lankidetzan. Lan globala egiten dugu hezkuntzan, baina tokian-tokian zehazten da, eta, horri esker, aukera dugu askotariko errealitateak ezagutzeko, elkarri hurbiltzeko eta harremanetan jartzeko, ezagutzak aberasteari begira, betiere. Horixe da, hain zuzen, garapenerako lankidetzaren balio erantsietako bat, hezkidetzaren esparruan are gehiago nabarmentzen dena, gainera.

Irizpide horietan oinarrituta, “Gela Hezkidetzaitetik Plaza Berdintzailera” proposamena diseinatu genuen, eta 2013ko urrian abian jarri genuen, Bizkaiko Foru Aldundiak eta ALBOANek finantzatuta. Ekimen horretan, bidaide izan ditugu Guatemalako zenbait erakunde, zeinekin aritu baikara lankidetzan aspalditik: Fe y Alegría Guatemala eta Instituto Guatemalteco de Educación Radiofónica (IGER). Bi erakunde horiek askotariko ekimenak bideratzen dituzte hezkidetzaren esparruan, eta, gure ustez, biziki interesgarria da haiengandik ikastea eta erakunde horiek gure ingurukoekin harremanetan jartzea.

Dokumentu honetan, Euskadin eta Guatemalan hezkidetzaren arloan gauzatutako esperientziak eta lekukotasunak bildu ditugu, bi herrialdeetan hezkidetzaren arloan egindako ibilbideen berri jaso, azertu eta uztartzeko. Lan honen ondorioak oinarri hartuta zehaztuko dugu datozen urteetan hezkidetzaren arloan egin beharreko lanaren norabidea. Eta, horrekin batera, irakasle eta hezkuntzarekiko interesa duen pertsona ororen eskura jarriko dugu dokumentua, gizarte globala eraldatzen jarraitzeko motibazioa eta gogoeta sustatzeko tresna gisa lagungarri izango dutelakoan.

2. “Hezkidetza” kontzeptuaren definizioa

RAEk ematen duen definizioaren arabera, hezkidetza da “bi sexuetako gazteei batera ematen zaien hezkuntza da”. Zehazki, hezkidetza da “gela berean eta hezkuntza-sistema berarekin irakastea sexu bateko eta besteko ikasleei”. Baina definizio hau motz geratzen da, eta ez da nahikoa kontzeptuaren benetako dimentsioa azaltzeko. Adiera horrek erreferentzia egingo lioke gaur egun “eskola mistoa” esaten diogun horri, ikasleak sexuen arabera bereizten dituen “eskola bereizia” edo “banandua” diogun horren aurkakoari, alegia. Baina hezkidetza are gehiago da; izan ere, geletan neskek eta mutilak elkarrekin egote hutsak (ezinbestekoa den arren) ez du bermatzen irakaskuntza bidezkoago eta berdintasunezkoago bat.

Fernando González Lucini pedagogoarean esanetan, hezkidetza definizioa hau da: “pertsonek garapen osoa bultzatzen duen hezkuntza-prozesua, pertsona horiek edozein sexutakoak direla ere”. Beraz, baterako hezkuntza ematen duen eskola bat da “sexuarengatiko desberdintasun-mota guztiak edo baztertzeko-mekanismo guztiak zuzentzen eta ezabatzen dituen, ikasle mutil nahiz neskek beren nortasuna benetako berdintasun-giro batean eta sexuaren araberrako inolako baldintzarik edo mugarik gabe libre garatzeko aukera emango diona”.

Gogoeta horretan sakonduta, Marina Subirats Martori soziologoak dioenez (Espainian hezkidetza sustatzen dabilenetako bat), “hezkidetzak, une honetan, mekanismo baztertzailerik desagerrarazteko helburua du, ez eskolaren egitura formalean bakarrik, baizik eta baita ideologian eta hezkuntza-jardueran ere”. Horrekin lotuta, hezkidetzak “ezin du hezkuntza-mota bat zehaztu soilik, neskek eredu maskulinoan sartzen dituen, hasiera batean proposatu zen bezala. Ezin da hezkidetzarik izan aldi berean betidanik generoaren araberrako eredu espezifikotzat jo izan ziren eredu kulturalen fusiorik ez badago”.

3. Testuinguruen deskribapena

3.1 Nola sortu zen genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren aldeko hezkuntza Guatemalan?

Hasteko, argitu behar dugu Guatemalako hezkuntza-arloan oso pertsona eta irakasle gutxi ezagutzen dutela baterako hezkuntza terminoa. Hala ere, “**genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasuna**” esapidea erabiltzen da, Oinarritzko Curriculum Nazionalako (CNBko) zeharkako ardatzetako bat da eta¹. Ardatz horrek osoko hezkuntza-proiektuak sorrarazi nahi ditu, ikasgeletan genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasuna sustatzeko, eta, horrela, emakumeen, indigenen eta txirotutako testuinguru sozialetako pertsonen bereizkeria historikoa iraunarazten duen eskola gaitzitu ahal izateko. Azken batean, zeharkako ardatz bat gauzatzean, baterako hezkuntzako proiektu bat sortzen da.

Hala, bada, Guatemalako testuinguruan, “baterako hezkuntza” erabili ordez, “genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren ardatza” izango dugu hizpide. CNBk honela kontzeptualizatzen du genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasuna:

<p>Equidad de género, de etnia y social Se refiere, fundamentalmente, a la relación de justicia entre hombres y mujeres de los diferentes Pueblos que conforman el país. Requiere, por lo tanto, del reconocimiento, aceptación y valoración justa y ponderada de todos y todas en sus interacciones sociales y culturales.</p> <p>Orienta el currículo hacia la atención de niños y niñas de acuerdo con sus particulares características y necesidades favoreciendo, especialmente, a quienes han estado al margen de los beneficios de la educación y de los beneficios sociales en general.</p>	<p>Equidad e igualdad Su propósito principal es eliminar toda forma de discriminación entre hombres y mujeres y lograr la igualdad en: derechos, oportunidades, responsabilidad, acceso a la educación, participación social y ciudadanía.</p> <p>Género y autoestima Permite la aceptación, el respeto y la valoración de la condición propia de ser mujer o de ser hombre. Fortalece la imagen que las niñas y los niños tienen de sí mismas (os) y desarrolla una identidad sexual auténtica, digna y no discriminatoria.</p> <p>Educación sexual: VIH - SIDA El currículo propicia oportunidades de comunicación, comprensión y complementariedad para el conocimiento de las cualidades y las funciones de la sexualidad. Tomo como base los modelos para la educación sexual de niños y niñas vigentes en las familias, la comunidad y en los convenios internacionales para lograr una educación sexual pertinente.</p>	<p>Equidad laboral Es la relación de justicia que se da en los espacios laborales, así como la formación de hombres y mujeres para acceder a las ofertas de trabajo en condiciones de igualdad, para tener una mejor calidad de vida.</p> <p>Equidad étnica Orienta hacia el establecimiento de relaciones justas entre hombres y mujeres de los diferentes Pueblos que coexisten en el país.</p> <p>Equidad social Propicia la posibilidad de que, tanto hombres como mujeres, desarrollen sus potencialidades y capacidades, habilidades y destrezas intelectuales, físicas y emocionales para que tengan las mismas oportunidades sociales, económicas, políticas y culturales. Además, debe atender en forma especial a los niños y niñas que necesitan superar alguna forma de discapacidad.</p>	<p>Género y poder: Propicia las mismas oportunidades para los y las estudiantes en los espacios de decisión y de participación a nivel familiar, escolar, comunitario y nacional.</p> <p>Género y etnicidad: Propicia las oportunidades de participación, respeto, valoración, acceso a los recursos, decisión, posición, situación y relación sin discriminación.</p>
--	---	--	--

Iturria: Curriculum Nacional Base

Genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren zeharkako ardatza kritikoki ulertu ahal izateko, sortu zenean zegoen testuinguru historikoan kokatu behar da: 1996ko Bake Akordioak, Guatemalako Gobernuak eta Batasun Iraultzaile Nazionalak –URNG– sinatutakoak. Akordio horiek amaiera eman zioten 36 urteko gerrari. Latinoamerikan egindako genozidiorik latzenetako bat izan zen hura, eta giza eskubideen urraketa lazgarriak egin ziren, batez ere emakume indigenen aurka. Herri Indigenen Identitateari eta Eskubideei buruzko Akordioa 12 Bake Akordioetako bat da, eta, beraz, Hezkuntza Erreforma hartzen du barnean, “etorkizun hobea izateko beharra betetzeko, hau da, gizarte pluralista, inklusibo, solidario, bidezko, parte-hartzaile, interkultural, plurikultural, multietniko eta eleaniztuna lortzeko. Gizarte horretan, pertsona guztiek ezagueraz eta gogotsu har dezaten parte ondasun komunitarioa eraikitzeke lanetan [...] arrazoi politiko, ideologiko, etniko, sozial, kultural, linguistiko edo

¹ Lehen Hezkuntza Aurrekoa, Lehen Hezkuntza, Oinarritzkoa (nahitaezko hezkuntza) eta Maila Dibertsifikatua (Espainiako sistemako Batxilergoaren parekoa) arautzen dituen dokumentu ofiziala.

generoko arrazoiengatik inolako bereizkeriarik egin gabe” (COPARE, 1998). Gaur egun abiarazten, hobetzen eta egokitzen ari den Hezkuntza Erreforma horretatik sortu zen CNB, bere zeharkako ardatzekin, arazo nazional larriei erantzuna emateko, besteak beste, berdintasun ezak eragindako arrakala larriez arduratzeko.

Ibilbide historiko laburra

Guatemalako hezkuntzan eta gizartean aspalditik dago generoko desberdintasuna. Guatemalako Luis Antonio Menéndez historialariaren esanetan, **kolonaurreko maien gizartean**, 1524an Espainiako konkistatzaileak iritsi arte, hezkuntza “familiarra zen, erlijioaren eragina zuen, eta nekazaritzan aplikatzen zen, bereziki artoa landatzeko lanetan [...] Emakumeen hezkuntzak etxeko espiritua zuen”. Egile beraren arabera, **Espainiako gobernu koloniala** 1524an hasi zenetik Guatemalak 1821ean independentzia eskuratu zuen arte, Eliza Katolikoa arduratu zen hezkuntzaz, eta espainiarren eta mestizoen semeak baizik ez zituen barne hartu, bazter utzi baitzituen hala emakumeak nola gizon indigenak. Guatemalako Ana Silvia Monzón soziologo eta feministari jarraiki, “historia ofizialak ez du garai horretako emakume ikasien izenik gorde ia, gehienbat beren klasearen eta etniaren ondorioz, apenas baitzuten modurik *beren sexuari zegozkion lanak* ez ziren jarduerak egiteko”. Egile berak dioenez, “XVI. mendearen bigarren zatian, neska zurientzako eskola bat eta dontzeila pobreentzako babes-etxe bat baizik ez zegoen”. Guatemalako San Carlos Unibertsitateko Emakumearen Unibertsitate Institutuak –IUMUSAC– gaineratzen duenez, kolonia izan zenean, “emakumeen irakaskuntza serorategietan izaten zen, ezkontzeko edo klaustorako prestatzen zituzten bertan, eta erlijio, sukaldaritza, bordatze eta musikako eskolak ematen zizkieten”.

Independentzia ondoko lehen urteetan, berriz, bestelako ideia hauek ernatu ziren: “hezkuntza Estatuaren kezka izan behar da, eta hezkuntzaren bidez baizik ezin da aberria berregituratu” (Meléndez, L.A., 2006). 1866an, neskentzako 45 eskola zeuden Guatemalan, eta guztira 1.944 ikasle zeuden matrikulatuta. 1874rako, neskentzako 183 eskola zeuden guztira, 6.312 ikaslerekin, baina haietatik bat ere ez zen indigena (PNUD, 2000).

30 urteko aldi kontserbadore baten ondoren, 1871n **garai liberala** hasi zen. Hezkuntzako aurrerapenen ikuspegitik, aldi horretan Justo Rufino Barrios (1873-1885) presidentearen gobernua nabarmentzen da. “El Reformador” esaten zioten (“Eraberritzailea”), eta bere agintaldian sortu zen Hezkuntza Ministerioa. 1871n izan zen “hezkuntza-erreformak kontrola kendu zion Elizari, eta hezkuntza estatal laikoa, doakoa eta nahitaezkoa ezarri zuen” (PNUD, 2000). Baliabidegabeziaren ondorioz ezin izan zen sakonean egin, baina, dena dela, garai hartan sortu ziren Indigenen Zibilizaziorako Ikastetxea eta indigenentzako institutu batzuk, **segregazio-politikari** jarraiki, lehen hezkuntza-sistematik bazter zeuden biztanleei hezkuntzan aukera bat emateko. XIX. mendearen azken urteetan, Rafael Carrera diktadore militarrek hau ezarri zuen: “nesken eskolak itzal handiko andreen ardurapean egongo dira beti, eta [moralak eta gizalegea, doktrina kristaua, idazkera eta aritmetikako lau arauak] irakasteaz eta praktikatzaz gain, josten, bordatzen, etxeko ekonomia eta beren sexuari dagozkien bestelako gaiak irakatsiko dizkiete” (PNUD, 2000). Horrez gain, emakumezkoentzako Bigarren Hezkuntzako lehen eskolak sortu ziren (Andereñoentzako Eskola Arruntak), Guatemalan, Quetzaltenangon eta Chiquimulan, bai eta emakumezkoentzako arte- eta lanbide-eskola ere, 1891n. Eskola horiek ez zituzten emakumeak prestatzen lan-merkatuan sar zitezkeen edo politikan parte har zezaten. “Etxeko ezaguerak hobetu zituzten” egiten zuten, “hala nola, etxeko ekonomia, etxea apaintzea eta garbitzea, norberaren higiena, garbiketa, lisaketa eta sukaldaritza” (PNUD, 2000).

Hala, bada, emakumeak oso astiro sartu ziren unibertsitateetako ikasgeletan. IUMUSACen datuen arabera, Guatemalako Olimpia Altuve izan zen unibertsitateko titulua lortu zuen Erdialdeko Amerikako lehen emakumea. 1919an eskuratu zuen farmazialari titulua (tituluak maskulinoan adierazita ematen zituzten, hau da, “farmacéutico”). Hala ere, emakume aitzindari horri toga hartzeko eta bere lanbidean aritzeko eskubidea ukatu zioten, emakumeek eskubide zibilik ez zutelako. Azkenik, 1967an, Emakume Unibertsitarioren Guatemalako Elkartearen laguntzaz, Olimpia Altuvek kimikari-biologo titulua jaso zuen, togarekin batera. 1927an, Luz Castillo Díaz Ordazek abokatu eta notario titulua eskuratu zuen Mendebaldeko Zuzenbide Eskolan, Quetzaltenangon, eta agintariek bere abokatu-langelako ateak itxi zituzten. Hala ere, beren ideia politikoak adierazten zituzten emakumeak ere izan ziren, adibidez, Adelaida Cheves eta Vicenta Laparra de la Cerda. Bi horiek, Isabel de Castellano,

Carmen de Silva eta beste emakume batzuekin batera, *El Ideal* egunkaria sortu zuten 1887an, "emakumeen interesen alde" goiburuarekin.

1926. eta 1930. urteen artean, Lázaro Chacón jeneralaren gobernupean, Eskolaurreko Maistrentzako Eskola Arrunta sortu zen, eta, horrenbestez, irakaspen horiek profesionalizatu egin zituzten –ordura arte enpirikoa izan baitzen–, Lehen Hezkuntzako eskolei erantsitako espazioetan. Ubico jeneralaren gobernuko urteak ilunak izan ziren (1931-1944), hezkuntza-zentroak itxi eta hezkuntzan atzerapen orokorrak egiteko irizpena eman baitzuen. Haren ondoren, **1944tik 1954ra arte izan zen iraultza-aldian, berriz, inoiz ez bezalako aurrerapena** izan zen herrialdean hezkuntza-arloan: besteak beste, maila guztietako hezkuntza-zentroak sortu zituzten, hezkuntza bereziaz arduratu ziren eta ikerketari bultzada eman zioten.

1954an, Estatu Batuetako armadak esku hartu zuen Jacobo Arbenzen gobernu kartzeko, eta, horrenbestez, amaiera eman zion "udaberri" horri. 1960an hasi ziren ondoko 36 urteetan Guatemalako nozituko zuen barneko gatazka armatuaren lehen ekintzak.

Gaur egun, Hezkuntzako 12-91 Lege Nazionalaren arabera, Guatemalako hezkuntza publikoa mistoa da, Lehen Hezkuntza Aurrekoa, Lehen Hezkuntza, Oinarrizkoa eta Maila Dibertsifikatua hartzen ditu barne, 0 urtetik 18 urte bete arte, Hezkuntza Ministerioaren –MINEDUC– araupean. Hala ere, Lehen Hezkuntza da herrialdean estaldura ia unibertsala lortu duen maila bakarra, eta hezkuntzaren kalitatea oso eskasa da. Hortaz, hezkuntza-eskaintza gehiena eta kalitatezko eskaintza guztia ikastetxe pribatuetan dago. Unibertsitatean edo goi-mailako hezkuntzan, unibertsitate publiko bakarra dago, hain zuzen, Guatemalako San Carlos Unibertsitatea, aldi berean, hezkuntza-maila horretako errektorea dena. Bestetik, 13 unibertsitate pribatu daude. Genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren zeharkako ardatza ezarri beharko litzateke ikastetxe guztietan, hala publikoetan nola pribatuetan, gutxienez Hasierako mailatik maila Dibertsifikatura arte. Hala ere, aurrerago azalduko dugunez, oztopo ugari daude hori lortu ahal izateko. Oztoporik handiena maisu-maistren prestakuntza gabezia izango da, beharbada.

3.2 Baterako hezkuntza Euskadin

Eskola mistotik baterako hezkuntza lantzen duen eskolara

Hezkuntza mistoa, gaur egun ezagutzen dugun moduan, aski gertakari berria da. XVIII. mendearen erdialdean, Europan egungo hezkuntza-sistemaren oinarriak jartzen hasi zirenean, emakumeak eta gizonak helburu sozial desberdinak betetzeko sortuak zirela uste zen, eta, hortaz, haien hezkuntza ere desberdina izan behar zela ebatzi zuten (Subirats, 1994).

Herritar guztiek eskolan hezkuntza jaso behar zutela zioen ideia nagusitzen ari zen pixkanaka, baina, hala ere, polemika zegoen, neskek ere hezkuntzaren onura jaso behar ote zuten. Nesken hezkuntza otoitzen eta etxeko lanen ikaskuntzaren inguruan antolatzen zen beti, eta neskek ez zutela ikasi behar argudiatzen zen, ez zutela kultura handirik behar, horrek emazte eta ama gisa bete behar zuten zereginetik urundu edo desbideratu ahal zituelako. Rousseauk, pedagogia modernoaren aitak, argi utzi zuen *Emilio* lanean, gizonaren izaera baizik ez zela askatasunez garatzeko duin, izaera arrazionala zuelako; Sofíaren izaera, berriz, instintu hutsean zegoen oinarrituta, eta, hortaz, nahitaez bideratu behar zen, gizonaren mendeko subjektu bilaka zedin.

XIX. mendearen erdialdera arte emakumeek ez zuten lortu espaziorik Espainiako hezkuntza formalaren esparruan. Lortu zutenean ere, curriculum berezia jarri zieten, zegozkien etxeko lanei egokituta. XX. mendearen lehen erdian, neskak Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Ertainean sartzeko prozesua geldiezina izan zen, baina mutilengandik bereizitako hezkuntza-instituzioetan eta curriculum bereziekin beti (Simón, 2010, 27. or.).

XX. mendearen azken herenera iritsi arte, sexuen arabera banatzen jarraitu zen, espazio desberdinetan eta curriculum desberdinekin, oso salbuespen gutxirekin. Irakaskuntzako Institutio Askeak baterako hezkuntzaren ideia eta praktika ekarri zuen, baina irakaskuntza batzuetan bereizten jarraitu zen. Gainera, II. Errepublikaren garaia oso laburra eta asalduraz betea izan zen, eta, ondorioz, ezinezkoa izan zen hezkuntza mistoko era horretako esperientziak sendotzea. Nolanahi ere, aldi labur-laburra izan zen arren, instantzia publikoek ezarritako eskola mistoak onura handiak ekarri zizkien neskei eta emakume gazteei, eskolatzeko-tasak nabarmen egin baitzuten gora eta zabaldu ahal izan baitzuten jarduteko zuten esparrua (Subirats, 1994).

Frankismoak atzerakada izugarria ekarri zuen baterako hezkuntzan izandako aurrerapen guztietan, 1960ko eta, batez ere, 1970eko hamarkadara iritsi arte, orduan hasi baitziren hezkuntza-instituzio publiko misto batzuk sortzen. 1970eko Hezkuntza Legeak ateak zabaldu zituen ikastetxe mistoak sortzeko, neska eta mutilentzako curriculum berbera izanda. Dena dela, 1985era arte, ez zen irakaskuntza mistoaren nahitaezkoatasuna ezarri funts publikoekin eutsitako zentro guztietan.

Hala ere, Marina Subiratsek dioenez (Subirats, 1994): “eskola mistoaren ezarpena ez da eztabaida pedagogikoen edo emakumeen aldarrikapenen eta borrokaren ondorioa; norbanakoei emandako tratamendu desberdinak formalki desagerrarazi behar dituen hezkuntza-sistema legitimatzeko beharraren emaitza baizik ez da”. Aurrerago zehazten duenez: “baterako hezkuntzaren gaia eta bere oinarri soziala ez dira eztabaida pedagogikoetan agertzen: ziurtzat jotzen da eskolak berdin tratatzen dituela neskek eta mutilak, programak bateratzen ari direlako”.

Baterako hezkuntzaren bilakaera Euskadin

Francoren diktaduraren ondoren gizartea eraldatzeko izan zen giroari esker, jauzi bat egin zen baterako hezkuntzako eskolaren ikuskeran. Euskadin, lau aldi bereiz ditzakegu baterako hezkuntzaren garapenean (Emakunde, 2015, 26. or.).

1. **1978-85.** Mugimendu feminista, sindikatuak eta berrikuntza pedagogikoko elkarteak izan ziren aldi honetako protagonistak. Jarduera, militantzia eta mobilizazio ugari izan zen. 1970eko Hezkuntza Legearen ondotik eskola mistoa ezarri arren, mugimendu feministek eta berrikuntza pedagogikoko taldeek aldarrikapenekin jarraitzen zuten, nesken eta mutilen baterako hezkuntza ezarrita ere, generoko desberdintasunek zutik zirautelako. Behin eta berriz errepikatzen zen ezinbestekoa zela hezkuntza-sisteman zeuden adierazpen sexistak hautematea eta salatzea, gero baterako hezkuntzako eskolaren kontzeptuarekin lanean hasteko.
2. **1986-90.** Aldi honetan, instituzioek (Europakoek, Estatukoek eta Autonomia Erkidegokoek) gehiago parte hartu zuten, eta hezkuntza-erreforma abian jarri zen. 1988an Emakunde sortu zen, Emakumearen Euskal Erakundea. Baterako hezkuntzaren filosofia instituzionalizatu zen, eta oinarrizko mugimenduak garatzen ari ziren ekimenak sendotuz joan ziren. Instituzioen rola gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, eta, hori gertatu heinean, talde feministen hezkuntza-batzordeak joan egin ziren, arian-arian, esku hartzeko espazioetatik, eta hausnarketa eta aholkularitza zehatza emateko talde bilakatu ziren, administrazioaren eskariei erantzuteko. Talde berriak sortzen hasi ziren, gehienak astialdiko jarduerari loturik.
3. **1991-99.** Baterako hezkuntzaren irakinaldia, gehienbat Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintza Positiboko Lehen Plana onetsi zirelako. LOGSEk zeharkakotasunaren kontzeptua sartu zuen hezkuntzan lehenbiziko aldiz, eta horrek bultzada handia eman zion baterako hezkuntzari. Euskadiri dagokionez, gehienbat, Pedagogia Aholkutegien (PAT) curriculumeko zeharkako arloetako aholkularitzek eta Irakasleen Prestakuntzarako Plan Trinkoaren ezarpenak jarri zuten abian zeharkakotasuna. Baterako hezkuntza zeharkako arlotzat hartu zen, eta Hezkuntza Sailak aholkulari bat izendatu zuen hiru lurraldeetan. Aldi honetako beste gertaera gogoangarri batzuen artean, Euskal Herriko Unibertsitate publikoan Baterako Hezkuntzako graduatu ondoko lehen ikasketak jarri zituzten martxan (90-91 eta 91-92 ikasturteak), eta udaletako ekintza positiboko lehenengo planak diseinatu zituzten, geroago, baterako hezkuntzako tokiko proiektuak bultzatzeko lagungarri izango zirenak.
4. **2000-gaur egun. Etenik gabeko gainbehera eta geldialdia** izan da. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak onartu zuen LOGSEri esker generoko zeharkakotasuna behar bezala sendotuta zegoela hezkuntza-sisteman, eta, horrenbestez, lehentasunak aldatu zituen. Era horretan, zeharkako arloetako aholkularitzak desagertu ziren (baterako hezkuntzako ere bai), PATak *Berritzegune* bihurtzeko prozesuan xurgatuta. Baterako hezkuntza Aniztasuna eta Elkarbizitza Arloan txertatu zuten. Horrela, baterako hezkuntzako prozesuek babesik eta laguntzarik gabe gelditu ziren tarte batez. Aldi horretan, bereziki nabarmentzen da Nahiko programa (2003an sortua), Lehen Hezkuntzarako baterako hezkuntzako programa pilotu bat, Emakundek bultzatua eta oraindik ere abian dena, eta, orobat, Beldur Barik izenekoa, gazteen artean indarkeria sexistaren prebentziorako urteko programa (2009an sortua), Emakundek eta Eudelek bultzatua. Bestalde, aipagarria da **2013an hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana** onartu zela, Hezkuntza Sailak bultzatua, baterako hezkuntza hezkuntza-agendan berriz sartzeko.

Baterako hezkuntzaren esparru juridikoa Euskadin

Gure ingurunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko politiken esparruan, arautuen dagoen esparruetako bat da hezkuntza. Eusko Legebiltzarrak onetsitako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak onartzen du hezkuntza-sistemak rol nagusia duela berdintasun-arloan.

Lege horretaz aparte, Euskadin ditugun lege, plan, dekretu eta gomendio askok eskaera egiten diote hezkuntza-sistemari baterako hezkuntzan oinarritutako filosofia har dezan, eskola mistotik harantz joz, eta pertsona guztien osoko garapena izan dezan helburutzat, sexu bakoitzari ezarritako genero-rolak gaindituta. Berdintasun-arloko araudi berezia da, eta hezkuntzako administrazioei zuzendutako alderdiak jasotzen ditu bere artikuluetan, arloko aginduak dituen hezkuntzako araudi gisa.

Luze eta zail izango litzateke baterako hezkuntzaren esparruko araudi luzea barne hartzea, eta, beraz, jarraian bilduma labur bat paratuko dugu, hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean dagoena (Eusko Jauriaritza, 2013, 31. or.):

- **Hezkuntzaren arloko esparru juridikoa**
 - 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Eskal Eskola Publikoari buruzkoa.
 - 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
 - 201/2008 Dekretua, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
 - Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (2013).
- **Berdintasun-politiken arloko esparru juridikoa**
 - 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.
 - 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
 - 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako.
 - EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (2013).
 - Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde Arteko II. Hitzarmena.
 - Ministro Batzordearen CM/Rec (2007) 13. gomendioa estatuei, hezkuntzaren alorrean genero-ikuspegia aintzat har dezaten.
 - 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Euskadiko hezkuntza-komunitatearen ezaugarriak

Azken urteetan izan dugun lan-praktika ikusita eta lehen aipatutako txosten batzuen argitan, osagai hauek nabarmentzen ditugu, hauek baitira garrantzitsuenak Euskadiko hezkuntza formalaren testuingurua aztertzean:

- **Eskolak gero eta garrantzi handiagoa du agente sozializatzailerik gisa.** Arartekoak egindako “Adingabekoei balioak transmititzea” txostenaren arabera (Arartekoa, 2009), 10-12 urteko neska-mutilek diote eskola dela lehena bizitzako orientabide guztien artean. Hori ikusita, hezkuntza-ardura zuzendu behar ditugu gure ahaleginak, hain zuzen, irakasleengana, gizartea aldatzeko motorrak direlako.
- **Genero-harreman asimetrikoak eskolan.** Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera, “nesken eta mutilen arteko harremanak asimetrikoak dira oraindik ikastetxeetan, eta abusuan oinarritzen dira askotan; gaitasunak, trebetasunak eta bizitza-proiektuak generoari lotuta egoten dira, curriculumen edukietan emakumeak ez daude agerian, eta sexismoak eta indarkeriak eragina dute nerabeen eta gazteen bizitzaren garapenean” (Eusko Jaurlaritza, 2013).
- Ikasleen hautaketa pertsonalak, profesionalak eta bizitzakoak, hein handi batean, generoko estereotipoen araberakoak dira. Errendimendu akademikoa gorabehera, Batxilergoan, mutilek modalitate zientifiko-teknikoak hautatzen dituzte gehienbat; neska gehienek, berriz, gizarte-zientzia eta humanitateetako gaiak hartzen dituzte. Hautapen akademiko desberdin horren ondorioz, mutilek tradizioz maskulinoak izan diren adar profesionalak aukeratzen dituzte, ordainketa hobea eta gizartearen balorazio hobea dituztenak. Neskek, ordea, oztopo gehiago aurkitzen dituzte lan-merkatara sartzeko, eta, hasten direnean, gehienetan, ordainketa urriagoa eta ospe gutxien dituzten lanbideetan aritzen dira.
- Hala ere, Emakundek dioenez, “**baterako hezkuntza gero eta baztertuago dago**, premia-koagotzat jotzen diren beste arazo batzuen atzean (immigrazioa, elkarbizitzako arazoak, etab.), eta orain arte ez da lortu kezka edo interes desberdinen artean loturak sortzea” (Emakunde, 2005).
- Hezitzaile batzuek motibazioa eta interesa dituzte dagoen berdintasun ezari buruzko prestakuntza izateko eta elkartasuneko hezkuntzari buruzko materialak eta jarduerak beren espazioetan (ikasgela, talde edo elkarteetan) erabiltzeko. Alabaina, batzuetan ez dakite nora jo, lan egiteko proposamenak eta prestakuntza zehatzak bilatzeko.
- Prestakuntza eta errealitatearen ezagutza sakona ekintzen proposamen zehatzekin lotu behar dira, dauden arazoak konpontzen laguntzeko. Beharra eta eskaera badago horretarako. Proposamen indibidualak, aldaketa eta eraldaketa pertsonalekoak, eta proposamen kolektiboak, antolakuntzakoak, espazio publikoetan parte hartu eta aldarrikatzekoak.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna eta genero-ikuspegia ez daude argi sartuta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleen hezkuntza-praktikan. Une zehatzetan baizik ez dira lantzen, elkartasuna bultzatzeko jarduera batzuetan, Emakumeak Garapenean (MED) arloko ikuspegiarekin.

4. Baterako hezkuntzaren aurrerapenak eta erronkak Guatemalan eta Euskadin

4.1 Guatemala, bazterketa historikoak gainditzen

Ondoko lerroetan, Guatemalako baterako hezkuntzaren azterketa bat egin dugu, hezkuntzan eta generoan adituak diren hango 6 pertsonaren iritziak eta esperientziak oinarritzat hartuta². Ekarpinak gai handitan antolatatu ditugu, baterako hezkuntzak herrialdeko zein testuingurutan egiten duen aurrera ulertu ahal izateko. Elkarrizketen bertsio osoa ALBOANen hezkuntzako webgunean (<http://www.educacion.alboan.org/es/materials/320>) eta gure blogean (“Mujeres en marcha” (<https://gaurkoemakumeak.wordpress.com/2015/01/30/aprender-a-coeducar/>), eta dokumentu honen eranskinean duzue ikusgai.

Genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunean aurrera egitea funtsezkoa da Guatemalako giza garapenerako

“Herrialde hau adibiderik egokienetako bat da zuzentasun eza erakusteko: kulturean, arlo material-ekonomikoan, generoan, adinetan eta ahalmen-urritasunekiko ekitate eza” (Carlos A.). Guatemalan, *“sistema arrazistan eta patriarkalean oinarrituta historikoki eratu diren baldintzetan du abiaburua”* zuzentasun ezak (Cecilia A.).

Guatemala bezain anitza den herrialde batean justizia izateko, zuzentasuna zabaldu behar da ezinbestez, neoliberalismo ankerrak pobrezian sartuta uzten baititu gizarteko sektore ahuletako biztanle ugari.

“Gizakiaren ikuskera baten parte da zuzentasuna, eta desberdintasunarekiko errespetuak duen baliotik abiatzen da. Horregatik, lotura estu-estua du aniztasunarekiko, etnia- eta erlijio-desberdintasunarekiko errespetuarekin, besteak beste.” (Guillermina H.).

Guatemalan, baztertuen dauden taldeentzako ekintza positiboko neurriak dira zuzentasunaren abiaburua

“Zuzentasunez ari garenean, Guatemalan eskatzen den aukera-berdintasuna bermatuko duen ahalegin edo borroka batez ari gara, eta, horrez gain, aurreko prozesuen bidez aukera bermatzeaz ari gara aldi berean. Ez da kontu bera ikastetxe batean sartzen den elikatu gabeko haur pobre bat, jaiotzatik proteinarik gabeko elikadura izan duena, eta hori guztia bermatuta sartzen den haur bat. “Aukera berberak dituela” esatea falazia bat da, jaiotzen den unetik beretik ez baitu horrelakorik” (Carlos A.).

Jarrerak, urrats bat legeen atzetik

Guatemalako gizarteko espazio guztietan aurrerapena sumatzen da, emakumeek gehiago agertzeko, parte hartzeko eta jarrera hartzeko aurrerapausoak. Genero-berdintasunak urrats irmoz egiten du aurrera, tentsio eta arbuio ugari sorrarazi arren. Gaur egun, berdintasunaren aldeko legeak eta politikak daude, eta emakumeek bidea urratzen dute, eta gauzatu ere egiten dituzte errealitatean. Hala ere, jarrerak aldatzeko prozesua astiroago doa. *“Zera uste dute: neskek direnez, ez dutela ikasi behar, ezkondu egingo direlako. Etxekoandre izateko inbertitu behar dutela. Zertarako inbertitu hezkuntzan? Batetik, denbora galtzea da, eta, bestetik, gizonek baizik ez dituzte oinordetzak jasotzen, emakumeek ez. Orduan, baterako hezkuntza bultzatuz gero, belaunaldi berriek beste ikuskera bat izango dute arazo honetaz, gure gizartean oso markatuta dauden estereotipoak daudelako”* (Sandy R.).

² Eskerrak ematen dizkiegu FLACSOko Genero Programako Walda Barrios eta Ana Lucía Ramazziniri, Guatemalako Hezkuntza Ministerioko aholkularia den Cecilia Alfarori, Guatemalako Hezkuntzako ministro ohia den Carlos Aldanari eta Rafael Landívar Unibertsitateko errektore ohia den Guillermina Herrerari, balio handiko laguntza eman digutelako.

Hala, bada, ezinbestekoa da gizartearen hezkuntza-prozesua, pertsonen izaera eta jokabidea berdintasunerako oztopo ez izateko. Zalantzarik gabe, eskolak rol nagusia du aldaketa kultural horretan. Abantaila hau dugu: *“eztabaida teorikoa dago eta maisu-maistrek interesa dute; jendea horretan ari da lanean (zuzentasunean hezten), baldintzarik txarretan”* (Ana Lucía R.).

CBNren genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren ardatza zabaldutako leiho bat da

Genero-, etnia- eta gizarte-zuzentasunaren ardatza Guatemalako hezkuntzako ikuspegi ofizialean sartuta dago, eta hori aukera handia da. Era horretan, baterako hezkuntzak Hezkuntza Ministerioaren lege-babesa eta oinarri filosofikoa ditu, eta, horrela, errazagoa da irakasleek onartzea. Ardatz hori onartzea lorpen bat da herrialdean deskribatutako testuinguruan: *“garai horretan izan zirenek gogora ekartzen zituzten ardatza hor kokatzeko egin behar izan ziren lanak, Hezkuntza Erreformako batzordearen barruan ere bai. Baina hor kokatuta egotea, nik uste, leiho baten modukoa da, gero eta gehiago landu litekeena. Emakume-elkarteek gehiago begiratu behar diogu ikasgelen barruan gertatzen denari”* (Walda B.).

Baina, nork eraman behar du aurrera baterako hezkuntza?

Funtsezko lau agente daude: Estatua, maisu-maistrak, prozesu sozialei laguntza emateko GGKEak eta gizarte zibila. Ikus dezagun:

- “Estatuak, beste instituzio batzuen bidez, Hezkuntza Ministerioa alde batera utzita. Nire ustez, gizarteak ikas dezan balio duen baliabide arin bat legezko ekintza bat da” (Guillermina H.). Azken batean, instituzio publikoaren itun bat zuzentasunaren alde, era guztietako bereizkeriaren aurka indarrean dauden legeak betearazteko.
- Jakina, maisu-maistren maisu-giltza beren ikuspegi pedagogikoa eta ikasleekin izateko eta jokatzeko duten era da. *“Maisu-maistrak funtsekoak dira; erraztasun material guztiak izanda ere, maisu-maistrak prestakuntzarik ez badu, ez du ezertarako balio.”* (Guillermina H.)
- Hezkuntza sustatzen duten GGKE-ek –adibidez, ALBOANek eta Guatemalan dituen kideak– ekarpen handia egin dezakete baterako hezkuntzak aurrera egin dezan: ikuspegi solidarioa eta justizia soziala, motibazioa, materialak, sareak... *“Ikusi denez, prestakuntza ez-formalaren bidez, irakasleek inpaktu handiagoa izaten dute hezkuntza formalean, eta hori oso interesgarria da; Guatemalan, GKE askok egiten dituzte prestakuntzako prozesuak hezkuntza-sistemaren barruan inpaktua izateko”* (Carlos A.).
- Familia-gurasoek eta gizarte zibil osoak eta bere erakundeek funtsezko zeregina dute: zaintzea eta presioa egitea hezkuntzako legeak eta politikak bete daitezen, giza kalitateko hezkuntza izateko, lortu nahi dugun zuzentasuna ikasgelen barruan eta kanpoan sustatzeko. Gogoratu ditzagun berriz aditu baten hitzak. *“Emakume-elkarteek gehiago begiratu behar diogu ikasgelen barruan gertatzen denari”* (Walda B.).

Erronka handiak zehazten...

- **Eskola mistoa ez da baterako hezkuntzako eskola:** *“hezkuntza-sistema mistoa jarri zen, eta, gero, “baterako hezkuntza” kontzeptua iritsi zen, baina jendeak uste zuen neskak eta mutilak ikasgela berean izatea zela baterako hezkuntza. Eta, orduan, mistoagoa zen hezkuntza hori bestea baino kaltegarriagoa izan zen, lehentasuna ematen hasi zirelako neskak mutilen azpian uzten zituzten elkarbizitzeari, praktikei, balioei... Horrela, aurreko sexismoa sortu zen berriz, era modernoago batean”* (Carlos A.).
- **Irakasleei** baterako hezkuntzari buruzko **prestakuntza** ematea: filosofikoa, antolakuntzako, edukiak, eta, batez ere, bizipenei lotutakoa. *“Nork irakatsiko dizkie maisu-maistrei kategoria berri horiek eta irakasteko modua? Generoa, kulturartekotasuna, zuzentasuna... Hezkuntza Ministerioa ahalegina egiten ari da”* (Walda B.). Hala ere, ez da aski: baterako hezkuntzak irakaskuntzan jardutera bideratuta dauden ikasketen edukietan egon behar du.
- Baterako hezkuntza landu behar da, **zeharkakotasuna ekintza zehatzekin elkartuz.** *“Zeharkakoa bakarrik ez, ikusezin bihurtu ohi delako; hor dagoela esaten dizute eta ez da egia”*

(Walda B.). “Zeharkakoa izateaz gain, zehatza den zerbait ikusi behar da, jendea ez baita zeharka aritzen” (Ana Lucía R.).

- **Baterako hezkuntza eta herritartasuna batzea:** “ulertu behar dugu baterako hezkuntzak bere baitan txertatu ez diren beste aldagai batzuk dituela: sexualitatea, kulturartekotasuna, hezkuntza politikoa eta herritarrena... Baterako hezkuntza hortik doa; haurrek modu duin eta zuzenean elkarri eragiten ikasten badute, horrek inpaktua izango du Guatemalan dauden botere-patroiak hausteko. Baterako hezkuntza guztiz politikoa da” (Carlos A.).

Zalantzarik gabe, erronka horiek hezkuntzarekiko grina duten pertsonen motibazioa pizten dute: argi erakusten digute baterako hezkuntzak benetako tresna bat jartzen digula eskura gizartea aldatzeko, justiziaren eta bakearen ametsaren bila.

4.2 Baterako hezkuntza Euskadin

2014ko apiril eta ekaina artean gure inguruan hezkuntza- eta genero-arloan dauden 7 adituri egin genizkien elkarrizketak dira Euskadiko baterako hezkuntzari buruzko azterketa honen oinarria³. Elkarrizketen bidez lortutako ekarpenak gaikako ataletan antolatu ditugu, Euskadiko baterako hezkuntzaren iraganeko, oraingo eta etorkizuneko gako batzuk ulertu ahal izateko. Elkarrizketen bertsio osoa ALBOANen hezkuntzako webgunean (<http://www.educacion.alboan.org/es/materials/320>) eta gure blogean (“Mujeres en marcha” (<https://gaurkoemakumeak.wordpress.com/2015/01/30/aprender-a-coeducar/>)), eta dokumentu honen eranskinean duzue ikusgai.

Eskola mistoa, baterako hezkuntzako eskola?

Oro har, aurreko eskola-eredu bereziarekin erkatuta, eskola mistoa ezartzea aurrerapentzat hartzen da. Hala ere, eskola mistoaren eredu urrun dago baterako hezkuntzako eskolak dituen balioetatik, María Silvestrek adierazi bezala, kontua ez baita soilik neskek eta mutilak ikasgela berean elkartzea. Ildo horretan, programa bakarra ezartzean, eredu maskulinoa eta androzentrikoa gailendu da, eta neskek horretara moldatu behar izan dute. Fernando Oregiren hitzetan, nolabait ere eredu maskulinoa unibertsalatu egin da, bertan “denak mutilak izatea baita berdintasuna, alegia, neskek mutilak bezala hezteak”. Era horretan, eskola mistoak tradizioz maskulinitasunari esleitu zaizkion balioak baizik ez ditu hartu, eta, Luisa M^a Puertasek azpimarratzen duenez, eredu horren gainean jarraitu dugu lanean.

Hala ere, sinesmenak hor dirau: eskola mistoa berdintasunean oinarritutako eskola bat dela berez, erantzun berbera ematen baitie neskei eta mutilari. Luisa M^a Puertasen esanetan, legezko berdintasunera iristean, berdintasuna lortuta dagoela barneratu dugu. Beatriz Ugarte “berdintasunaren ilusio” horrek eragin ditzakeen ondorioen aurrean erne egoteko esaten du, gerta baitaiteke funtsezkoak diren alderdi batzuk lantzeari uztea eta zenbait ideia eta portaera onartzea, hain zuzen, Ana Isabel Sanzek “curriculum ezkutua” deitzen duena.

Baterako hezkuntzaren ibilbidea

la aho batez adierazi ohi da LOGSEk bultzada handia eman ziola baterako hezkuntzari, generoko ikuspegia zeharkako ardatz gisa hartzean. Une horretan, 90eko hamarkadaren hasieran, jaiotako Emakunde, orduan azaldu ziren irakasleentzako baterako hezkuntzako lehen aholkularitzak (egungo berritzeguneak) eta hainbat proiektu abiarazi ziren lehen sakabanatuago aritzen ziren protagonisten artean koordinatuta, adibidez, mugimendu feministaren edo berdintasun-arloko instituzioen artean. “Ordurako ez ziren pertsona bakartuak, boluntaristak eta kontzientzia hartutako lagunak, nolabaiteko masa kritikoa sortu baitzen, sistemaren barruko mugimendu bat”, azaltzen digu Fernando Oregik.

90eko hamarkadan izandako goraldiaren ondoren, baterako hezkuntzak beherakada izan zuen. Raquel Raposok dioenez, baterako hezkuntza sartutak jo zen, zeharkakoa zelako. Hala ere, urtuta geratu zen, eskolari filosofia berri bat emateko ezgauza. Ana Isabel Sanzen iritziz, “mainstreaming” ereduari jarraiki berdintasuneko politikak homogeneizatzeko Europako neurrien ondorioa da hori. Izan ere, politika zehatzak bultzatu ordez, zeharkakotasuna hartu zen ardatz gisa, eta, horren ondorioz, desegin egin ziren berdintasuneko politikak egiten gailentzen ziren espazioak.

Ildo horretan, Luisa M^a Puertasen arabera, baterako hezkuntza ez zela benetan jarri kritikatzeko da, “ikastetxeen borondatearen esku” utzi baitzen. “Administrazioaren onarpena falta zen, hura garrantzitsua zela eta gobernuaren ikuspegitik hartu behar zela onartzea”. María Silvestrek gaineratzen du gaur egun ere “emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez dela lehentasuneko gaia agenda politikoan”. Bestalde, bere ustez, “baterako hezkuntzak jaso duen bultzada

³ Honako hauei eskerrak eman behar dizkiegu laguntza baliotsua eman digutelako: Raquel Raposo Acevedo, Emakunderen Programa eta Prestakuntza Arloko arduraduna; Beatriz Ugarte Maiztegi, Gasteizko Berritzegune A02-ko Bigarren Mailako aholkularia; Luisa M^a Puertas Peña, Berritzegune Nagusiaren Aniztasun eta Elkarbizitza Arlokoa; Begoña Garamendi Ibarra, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria; Anabel Sanz Del Pozo, Basauriko Udaleko Berdintasuneko teknikaria; María Silvestre Cabrera, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatekoa, eta Fernando Oregi Altube, Orebe aholkularitzakoa.

berdintasunaren arloko erakundeek eman dute gehienbat, hainbat gobernu-organoren barnean, baina hezkuntza-arloak hartu behar du horren ardura osoa”.

Azken ikasturteetan aurrera egin da baterako hezkuntzaren arloan, Hezkuntza Sailaren eta baterako hezkuntzarako eta hezkuntza-sisteman generoko indarkeria prebenitzeko 2013aren amaieran aurkeztutako Plan Gidariaren eskutik. Horixe da bere pertzepzioa. Ana Isabel Sanz bat dator pertzepzio horrekin, baina bere ustez ez dago baliabide aski: “Nire ustez, diru asko gastatzen da materialak prestatzeko, eta hori ondo dago, baina neurri zehatzekin osatu behar da”. Begoña Garamendik azaltzen duenez, “Sailak hori guztia aurrera eramateko moduko egiturak bultzatu behar ditu”, hain zuzen, irakasleentzako eta administrazioan lan egiten duten pertsona guztientzako prestakuntza.

Beatriz Ugartek begirada positiboa du baterako hezkuntzaren egoeraz. Dioenez, “azkenean, badirudi aurrera ari garela, askotan, kontua ez baita asko egitea, baizik eta egiteari ekitea”. “Instituzioetako agenteen arteko eragin-trukea izatea” espero du, “baliabideei eta etekinei onura ateratzeko”. Gogora ekarri duenez, gure inguruan, sentsibilizazio-maila aski altua da berdintasunaren gaiarekin, eta talde feminista eta engeaiatutako erakunde asko ditugu. Fernando Oregik ere orain arte baterako hezkuntza landu duten talde eta elkarte horiek aipatu ditu. Ondorio gisa dioenez, sistemak bultzatutako prozesua “hasi besterik ez da egin”, baina, behin abian jarri ondoren, “izugarritzko traxzioa izango du”. “Horrek ez du esan nahi zerbait abian jarritz gero automatikoki funtzionatuko duenik”, zehaztu du Luisa M^a Puertasek, “baina, besterik ez bada ere, jende asko hasiko da gai jakin batzuei buruz hausnartzen”.

Indarguneak eta ahultasunak

Baterako hezkuntzaren esparruko lana babesten eta sustatzen duen lege-esparrua da zehaztu den indargune nagusietako bat. Horri loturik, Beatriz Ugartek dio ona dela nahitaezkozkat jotzea ikastetxe guztietan baterako hezkuntzako arduradun bat egotea, hala klaustruan nola Eskola Kontseiluan. Dena dela, ohartarazten du “garrantzizkoa dela arduradun hori edozein ez izatea, adibidez, ikastetxera iritsitako azkena, edo inork ez duelako nahi behartuta dagoena; ona da ikastetxean prestakuntza eta aginpidea dituen pertsona bat izatea, ingurunea ondo ezagutzen duena, lana ondo egiteko moduan egon dadin”. María Silvestrek deitoratzen du, hala ere, “baterako hezkuntzaren alderdi asko boluntarioen esku geratzen direla” eta “irakasle guztiak ez direla berdintasunerako hezkuntzatik igarotzen, berdintasunean oinarritutako hezkuntza irakatsi ahal izateko”. Hortaz, “berdintasunerako prestakuntza askoz gehiago orokortzea eta nahitaezkoa izatea” proposatzen du. Ildo horretan, hala Beatriz Ugartek nola Luisa M^a Puertasek gure inguruan dagoen “etengabeko prestakuntzaren kultura” nabarmentzen dute, eta ikastetxeetan baterako hezkuntza lantzeko “gogoa” dagoela adierazten dute.

Legeriari dagokionez, Luisa M^a Puertasen iritziz, “kalea askoz ere aurrerago joan da”, eta kasu askotan erreferentea da. Fernando Oregik horixe bera esaten du, eta gogora ekartzen du “ez garela hutsetik hasi, lan asko baitago eginda”. Beatriz Ugaldek mugimendu asoziatiboaren indarra eta hezkuntza arloarekin dagoen lotura sinergikoa azpimarratzen ditu, eta, erakundeen arteko laguntza aipatzeaz gain, aditzera ematen du baterako hezkuntza “kalera atera dela eta jende gaztearekin harreman handia izatea lortzen ari dela”. Onartzen du atzerapena dagoela kalean eta ikastetxeetan gertatzen denaren artean, baina bat egiten du Fernandoren ideia honekin: “nekez gertatuko da eskolan gizarrean gertatzen ez den zerbait”. Luisa Marik dioenez, horrek aldeko testuinguru soziala sortzen du, “kezka larria baitago indarkeriaren prebentzioaren gaiarekin”.

Hala ere, ziurrena, gizarrean dagoen berdintasunaren ispilua izango da baterako hezkuntzak izango duen arazo nagusietako bat. Raquel Raposoren iritziz, irakasleentzat ere bai, baterako hezkuntzaren ikuspegitik lan egitean, zalantzan jarri behar baitira norberak dituen jarrerak eta “barruan ezkutaturik duena aurkitu, norberaren gizarteratze-prozesuak txertatuta, hori lagungarri baita ikasgelatik harantz egoera jakin batzuk berriz sor daitezen”. Ana Isabel Sanzek deitoratzen du unibertitate-garaian gaiari buruzko prestakuntzarik ez egotea, eta harrigarria iruditzen zaio Irakasle Ikasketetan ere baterako hezkuntza “ez izatea gai nagusi bat, hautazkoa baizik, bide-hezkuntza egin ordez aukeratzeko modukoa”. Beatriz Ugarteren ustez, “eztabaida falta da aurrera egin ahal izateko”, “normalean eztabaida gatazkarekin lotzen dugu eta horregatik uzten dugu alde batera”, baina oso garrantzitsua da eztabaida egitea eta “espiritu kritikoa” sortzea.

Beatrizek eta Luisa Marik aho batez esaten dute egungo ereduarekin irakasleak ari direla zama guztia eramaten. Haien nekea aintzat hartu, eta estrategiak bilatu behar dira, “bilguneak edo sareak eskaini, beste eskola batzuekin gauzak partekatuzko”. Horren aurrean, Beatrizek hezkuntzako agenteen

arteko koordinazioaren alde egiten du, “kontua ez baita gauza gehiago egitea, beste era batera egitea baizik”. Luisa Mariren iritziz, ikastetxeetan dagoen presioaren ondorioz, “gizarteak konpondu gabe duen guztia, azkenean, ikastetxeetara joaten da”. Erronka hau jotzen du: “baterako hezkuntza ez ulertzea beste zerbait izango balitz bezala, baizik eta gure lana egiteko dagoen modu desberdin gisa, aukera ematen baitigu normalean oharkabean joaten zaizkigun alderdi zehatz batzuk ikusteko”.

Raquel Raposo eta Fernando Oregiren esanetan, zeharkakotasuna zailtasun handiko gaia da. Raquelen ustez, baterako hezkuntza zeharkakoa denez, ez du behar adinako pisurik lortzen, eta, azkenean, “ez da ondo ulertzen zer den zeharkakotasuna”. Fernandok dioenez, batzuetan, “oro har hitz egiten da erabat, eta, horrela, ez dakigu zertaz ari garen ere”.

Irakasleen, ikastetxeetako zuzendaritzen eta familien jarrera, baterako hezkuntza lantzerakoan

Ana Isabel Sanz, Beatriz Ugarte eta Fernando Oregiren arabera, irakasle askok errezeloak dituzte “aparteko karga” moduan ikusten dutenaren aurrean. Fernandok eta beste kide batzuek adierazten dute baterako hezkuntzak ez duela esan nahi zeregin edo ikasgai gehiago hartu behar direnik, kontua “bakoitzak bere lana egiteko duen modua baita”. Ildo horretan, Ana Isabelek dioenez, lan egiteko beste molde hori ikasteko, “prozesu bat behar da, denbora, eta, horretarako, baliabideak eta bitartekoak ere bai”.

Aurre egiteko beste jarrera batzuen artean, “prestakuntza falta eta segurtasun eza sumatzen da egoera sexisten aurrean”, eta, gainera, “muturreko jarrerak azaltzeko beldurra” eta jarrera ezkorra egoera horren aurrean, “ezin baita ezer egin”, Beatrizek dioenez, “hembrismoa eta feminismoa nahasten baitira oraindik”. Ana Isabelen arabera, beste zailtasun bat dago, hain zuzen, ikasgelako alderdi batzuk “ez ikustea”, esate baterako, hizkuntza androzentrista edo mutilak ikaskuntzan duen protagonismo handiagoa. Kasu horietan, Fernando Oregik adierazten du sententzio okerra dagoela, sistema neutroa dela uste baita, eta, gainera, “gai bat zalantzan jartzen ez badugu, ikasleek uste dute ontzat jotzen eta sustatzen ari garela”.

Dena denla, sumatzen da irakasleak nabarmen hurbildu direla baterako hezkuntzara; Fernandoren iritziz, askotan, “hasierako fidagaitasuna edo ustekabea sarritan alaitasun bihurtzen da, edo zerbait aurkitu izanaren sententzioa, lehen ulertzen ez zenituen gauzak ulertzen hasten zarelako”. Emakunderen baterako hezkuntzako Nahiko programan ari diren Maria Silvestrek eta Raquel Raposok adierazi dutenaren arabera, “irakasleak, oro har, prest daude hainbat eratako gaiak lantzeko eta ikasteko, konturatu direlako baterako hezkuntza gelan landu ahal izateko tresnak falta zaizkiola”. Eskoletan egiteko lan-mota horri buruz, Ana Isabel Sanzek egiaztatu du “irakasleek oso ondo onartzen dutela kanpotik gauzak egitera joatea”, nahiz eta kanpotik joate hori “azkenean ezertara iristen ez diren oso ekintza puntual hutsak izan”. Ondorio gisa adierazi duenez, “Eusko Jaurlaritzarenak diren erantzukizunetan, nolabait haren ordeko lana egiten dugu guk”. Hala eta guztiz ere, irakasleei beren hezkuntza praktikak birplanteatzeko zailtasunak ezagutu arren, ikuspegi baikorra daukagu. Honako hau dio Raquel Raposok: “gure esperientziak erakusten digunez, irakasleak inplikatu egiten dira zer egin behar den eta nola egin dakitenean, eta hori egiteko denbora daukatenean”.

Beatrizen esanetan, ikastetxeetako zuzendaritzak ezinbesteko eginkizuna du “baterako hezkuntza ikastetxeko identitatearen zati bihurtzea lortu” ahal izateko. Raquelen arabera, horrek “ikastetxeen ahalegina eskatzen du, irakasleei aparteko denbora eman behar baitie horretarako”. Fernandok dioenez, nahiz eta ikastetxeekin lana egiteko garaian “beti zuzendaritzaren konpromisoa izan den, ekimena gehiago jaio izan da irakasleengandik, pertsona edo talde jakin batzuegandik”; edonola ere, Hezkuntza Sailaren inplikazioak “bidera dezake zuzendaritza mailan baterako hezkuntza gehiago lantzea”.

“Baterako hezkuntzaren desafiorik handienetako bat familiak hezkuntza prozesu osoan txertatzea da, bestela benetako haustura gerta daitekeelako ikasleak ikastetxean bizitzen ari direnaren eta etxean bizitzen ari direnaren artean”, dio Fernandok. Raquel Raposoren iritziz, familiak “gizartearen isla dira; bertan, berdintasunaren pertzepzioa dagoeneko lortuta dago”, eta horiekin lan egiteko zailtasuna dagoela azpimarratzen du. Fernandok dioenez, tamalez, zenbait gairen aurrean erantzukizun ia osoa ikastetxeen esku uzten da oraindik, eta “familia gehienek ez dute parte hartzen, ez dira ikastetxera joaten, eta ez zaie iruditzen hezkuntza beraian kontua denik”. Era masiboan joaten ez badira ere,

Raquelen ustez, kateatzen direnean, “begirada aldatu egiten zaie”. Beatrizek dioenez, oro har, baterako hezkuntzari garrantzia eman ohi diote, “gaiak beren seme-alabei zuzenean eragiten diela sumatzen dutenean”, eta orduan sortzen dira, hain zuzen, ikasle, irakasle eta familien arteko harremanak. Ondorio gisa, adierazten du, hain emaitza atseginak jasotzen jarraitu ahal izateko, beharrezkoa dela “familien parte hartzea sustatzeko estrategiak berritzea”.

Landutako gaien bilakaera eta gaur egungo eztabaidak

Luisa M. Puertas eta Maria Silvestrek diotenez, hizkuntza inklusiboa Euskadin baterako hezkuntzaren esparruan gehien landutako alderdietako bat balitz bezala aurkezten da, nahiz ahozko komunikazioan, nahiz hezkuntza materialetan, hori bezain “errazak” diren edo “gehiago bistaratzen” diren beste batzuekin batera. Horren harira, Fernando Oregik jolaslekua aipatzen du bereziki: zenbait ikastetxek, beste neurri batzuen artean, egunka banatzen dituzte bertako espazioak edo hainbat materialekin egiten diren jolas kooperatiboak bultzatzen saiatzen dira.

Beatriz Ugarteren ustez, genero-indarkeriaren prebentzioa nahikoa landuta dagoen beste gai bat da, eta, gainera, “jendea kateatzeko modu bat” ere bai; administrazioen programarik sendoenak aipatzen ditu: Nahiko eta Beldur Barik. Hala berak nola Luisa Marik hezkuntza afektibo-sexuala aipatzen dute landu diren gaien artean, nahiz eta “ez beti egoki” landu, eta batzuetan “ikuspuntu erreproduktibo hutsa” erabili izan dela aurpegiratu. Fernandok zehazten duenez, arlo fisiologikoan aurreratu den arren, “arlotan oso gutxi edo batere ez” da lortu, eta, bertan, “oso mendekoa den maitasun erromantikoari lotutako portaera jakin batzuk ari dira berregiten”.

Luisa Mariren arabera, sakontasun handiagoarekin lantzen hasi diren beste gai batzuen artean, “orain arte estali samar” egon diren askotariko identitateak eta orientazio sexuala agertzen dira. Fernando Oregik adierazten duenez, antzeko egoeran dago orientazio akademiko-profesionala ere: “%90eraino maskulino edo femenino bihurtu” diren ikasketen eta lanbideen aurrean sakontzeko behar handia dago oraindik. Luisa Marik desafio bezala erantzen ditu txarrak jasandako emakumeen seme-alaben gaia eta kulturartekotasuna; horren harira adierazten duenez, “badugu ohitura gainerakoei esateko gauzak nola egin behar dituzten; hemen berdintasunik lortu ez badugu ere, gainerakoei berehala esaten diegu nola izan behar duten berdinak”.

Baterako hezkuntza bultzatzeko neurri bezala, Beatriz Ugartek proposatzen du martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko ospakizunak hartzen ari diren indarrak baliatzea, ekitaldi horiek “hortxe bertan gera ez daitezen”, eta balio dezaten “irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak diseinatzeko eginkizunean era sistematizatuan txertatzeko aitzakia gisa”. Mikromatxismoei eta askotariko maskulinitasunei dagokien guztiari hobeto ekitea aipatzen du, eta aurrerapausotzat hartzen du “mutikoak erantzukizunak beren gain hartzen joatea”, “eurek beren gain hartu duten erantzukizuna eta gizarteak haiei esleitu diena ere txikia izan den” testuinguru historikoan.

Baterako hezkuntzaren inguruko eztabaidak irekita jarraitzen du, eta gai horietako asko oraindik ere puri-purian daude. Luisa M. Puertasek adierazten du argitu egin behar dela “baterako hezkuntza nahikoa ote den genero-indarkeria lantzeko edo berariazko esku-hartzeak behar al diren”. Beatriz Ugartek erantzen duenez, argitu egin behar da indarkeria hori “diziplina edo zigorraren ikuspuntu hutsetik, baterako hezkuntzatik urrunduz,” lantzen den. Aurkako jarrera ikusten du zenbait sektoretan: “ezagutza feministaren ekarpenari izen ona galarazten diote, gutxietsiz, eta emakumeak aldi berean biktima eta erantzule bihurtzen dituzte”. Ana Isabel Sanzek “erantzuneko antifeminismoa” aipatzen du: gehienbat “beren pribilegioak galdu nahi ez dituzten gizonen” osatzen dute. Hala ere, “feministok gizon asko izan ditugu beti guri laguntzen”; tamalez, feminismoa ez den zerbait bezala aurkeztu ohi da: “emakumeek gizonen aurka egiten duten borroka”.

Raquel Raposok eta Fernando Oregik uste dutenez, “nahiko ados gaude hartu beharreko noranzkoari buruz”, eta eztabaidaren ardatza “nola” galderan egon liteke, leku eta une bakoitzerako estrategiarik onena aurkeztean. Luisa M. Puertasek prebentzioa adierazten du, honako hau gogoratuz: “ikasle guztiak hartu behar dira aintzat, neska eta mutil, inor alboratu gabe”. Beatrizen iritziz, dakiguna praktikan jartzea falta da, izan ere, “behar duzun jakinduria ematen dizu, nolabait desafio berriei, ideia berriei eta gauzak egiteko modu berriei aurre egiteko”.

Baterako hezkuntza ikasgeletan: zeharkako edo berariazko ikuspuntua eta errealitate sozialarekiko lotura

Baterako hezkuntza lantzerakoan, funtsezkoa da zeharkakotasuna, inondik ere. Luisa M. Puertas eta Raquel Raposok diote baterako hezkuntzak “egiten dugun guztiaren baitan egon behar duela”, ez baita ikasgai bat, Maria Silvestrek eransten duenez, baizik eta “pertsonek arteko harremanak ulertzeko modu bat”. Alabaina, ados daude Fernando Oregirekin aldi berean “sakontzeko berariazko espazioak behar direla” adierazterakoan, eta Luisa Marik tutoretzak aipatzen ditu adibidetzat. Hori dela eta, Beatriz Ugartek argi eta garbi dio: “ezin dut bata bestea gabe irudikatu; inkohertzia irudituko litzaidake”.

Funtsezkoa da, halaber, baterako hezkuntzak hezkuntza-esparru formaletik harantzago ere eragina izatea. Horren harira, Ana Isabel Sanz beldur da baterako hezkuntza “ikastetxeko ikasgai bat gehiago bihurtuko ez ote den, kanpoko errealitatearekin loturarik gabea”; dena dela, zenbait proiektu aipatzen ditu, hala nola, Basauriko 1ERA 2KAIN, zeinetan garrantzi handia ematen dioten ikasgelaz kanpoko lanari, horrek duen zailtasunaren jakitun izanik ere. Ikuspuntu horretan bat datoz Fernando Oregi eta Maria Silvestre ere, iruditzen baitzaie baterako hezkuntza errealitate sozialarekin lotzea dela “une honetan erronkarik handienetako bat”. Horrez gain, diotenez, “baterako hezkuntzan aurrera egiteko modu bakarra eskola eta bere ingurua elkarrekiko erabat iragazkorak izatea da”, familiak eta eragile sozial guztiak barruan direla. Ana Isabellek gogorarazten du “gizarteko parte-hartzea 8etatik 3etara bitarteko ordutegietatik kanpo lantzen dela sarritan”, eta, gainera, gutako bakoitzaren erantzukizuna eta eragileak batzearen garrantzia aipatzen ditu. Barruan sartuko lirateke sarean lan egiteko asmoa duten elkarteak, nola gurasoen elkarteak, hala auzotarrenak edo gazteenak.

Fernandori egokia iruditzen zaio eskola-arloko lana, eta iruditzen zaio ziur aski “hasteko era bakarra” izango dela, baina harantzago joatearen garrantzia gogoan izanda. Izan ere, bestela, arriskua dago baterako hezkuntza “jakin arren, bizi ez dugun zerbitu” bilakatzeko.

Eskola mistoaren balioak eta era desberdinduan lan egiteko proposamena

Fernandok dioenez, “neska-mutikoek elkarrekin ikasteak balio izugarria du; alde onak baino ez ditu”. Aho batez babesten duten iritzia izateaz gainera, gela konplexu eta pluralean aniztasuna aberastasun bezala ikusi behar dela gehitzen dute. “Neska eta mutikoen artean bakarrik ez, baita ingurune, jatorri edo inguruabar desberdinen artean ere”, erantsi du Maria Silvestrek. Fernandok ondorio gisa dioenez, “eskola ez da bizitzarako prestakuntza bakarrik, bizitza bera da dagoeneko, eta bizitza mistoa da”.

Hala ere, nola Luisa M. Puertasek, hala Beatriz Ugartek zehazten dute hezkuntza mistoak bere horretan ez duela baterako hezkuntza bermatzen, baterako hezkuntzak “pauso bat askoz ere aurrerago ematea” esan nahi duelako. Diotenez, elkartzea baino garrantzitsuagoa da geure buruari galdetzea “zertarako” eta “nola”. Hor agertzen da bereizitako taldeetan lan egiteko aukera, baina “alderdi partikularrak bakarrik joratzeko, eta estrategia oso zehatzarekin”, dio Maria Silvestrek. Ana Isabel Sanz eta Fernando Oregik ohartarazten dutenez, “emaitzak partekatze baldintzarekin, elkarlanean batera lan eginez, hasieran nahiz bukaeran”. Beatrizen iritziz, elkarrengandik banandutako kulturetakoak izateak nolabait justifikatzen du era horretako metodologia aldi behin erabiltzea, aintzat hartuta gure eguneroko bizitzan “mota horretako espazioak etengabe aukeratzen ditugula, zerbait eskaintzen digutelako, eta ezin dugula premia hori alboratu”. Gainera, Mariak adierazten duenez, taldeka bereiztean “oso gauza interesgarriak ateratzen dira”, “adierazteko askatasuna handiagoa izan daitekeelako, baina segregazio ideia lekualdatu gabe”.

Luisa Mariren eta Beatrizen ustetan, adina eragile garrantzitsua da bereizita lan egiteko garaian, “identitatea garatzearekin lotutako adinetan” bereziki, adibidez, 16 urterekin, adin horretan zenbait portaeratan nabarmentzen baita generoaren eragina. Prozesu horretan, Fernandok dioenez, pertsonalizazioa da eskola-sistemaren hutsune nagusia, “pertsonek bakoitzaren erritmoak errespetatzea”, kontuan izanik “heltzeko prozesuan elkarren arteko desberdintasunak” azal daitezkeela, eta ondo jakinik “mutilen ezaugarriek hutsune batzuk dituztela eta neskenek beste batzuk, eta hezkuntzako esku-hartzea ezaugarri horien gainean egiten dela, hain zuzen”.

Banandutako moduan lan egitea unean uneko baliabide bezala arrazoitu daiteke, inoiz ez arau moduan, baterako hezkuntza ari den eskola mistoaren baitan. Bertan, Begoña Garamendik azpimarratzen duenez, “zurekin elkar ekintzan aritzen diren pertsonen maila zenbat eta anitzagoa izan”, orduan eta aberasgarriagoak izango dira emaitzak.

Kulturartekotasuna eta baterako hezkuntza

Aniztasuna da, hain zuzen, hezkuntza-ardatz horiek batzen dituen, “hezkuntza berdintasunean, aniztasuna errespetatuz”, zehazten du Maria Silvestrek. Raquel Raposok aitortzen duenez, lantzeko garaian zailak dira biak ala biak, eta ondoren eransten duenaren arabera, “asko teorizatzen dugu, baina kosta egiten zaigu praktikara eramatea”. Antzekotasunetatik harantz joz, Fernando Oregik adierazten duenez, “ez dira banantzen benetan”, herritarrentzako beharra eta erronka dira, eta “guztiok elkarrengandik ikas dezakegu bertatik”.

Ana Isabel Sanzen iritziz, hala baterako hezkuntza, nola kulturartekotasunean “desberdintasunak nolabait diskriminatzaile bihurtzen dituen logika bilatu beharko genuke”, eta neska-mutilak hezi, “desberdintasunak izatea ezaugarri positibo eta funtsezkotzat joz eta bistaratuz”. Beatriz Ugarteren ustez, identitatearen garapen askea bidera dadin, “gure kulturarekiko bezain kritiko izan behar dugu bestearen kulturarekiko, normaltzat hartzen dugunetik hasita”; hori dela eta, “epaile bezala kokatu beharrean, kide bezala kokatzen gara”.

Fernandok dioenez, auzitan jartze hori kulturartekotasuna eta baterako hezkuntza etengabe gurutzatzearen adibidea da, izan ere, irakasleen eta beste kultura batzuetako familien arteko harremanean “gizonak nolakoa izan behar duen eta emakumeak nolakoa izan behar duen ulertzeko beste era batzuk” agertzen dira. Horrek “irakasle jakin batzuk baterako hezkuntzara hurbiltzera eramanez”.

Ikasgeletan, “garrantzitsua da gurutzatze hori gatazkaren ikuspegitik ez ikustea”, adierazten du Luisa M. Puertasek, eta “igerilekura joan nahi ez duen neska musulmanaren” kasua hartzen du adibidetzat. Kutsu kulturalaren inguruan, berak dioenez, “gauza batzuk ikusten ditugu, eta beste batzuk ez”, eta familiekin “geu gaineratik kokatu gabe” hitz egiteak duen garrantzia gogorarazi du. “Hemen ez gaude hain ondo, eta datozenak ez daude hain gaizki”, adierazten du Fernandok. Adibide bezala, berdintasuna semaforo batekin lotu du, eta argudiatu du beste gizarte batzuetan debekuak eta semaforo gorriak aplikatzen diren bitartean, “gure eskoletan ez zaiela neskei ingeniari ikastea edo mutilei erizaintza ikastea debekatzen, baina hori ez dutela egin behar ikasten dute”. Badira horiek bezain diskriminatzaileak diren “semaforo berdeak”, eta, horien arabera, “jokabide jakin batzuk txalotzen eta saritzen dira, eta beste batzuk ez”.

Bere ustez, kulturartekotasuna eta baterako hezkuntza bezalako bi ardatz uztartzerakoan, “askotan konponbidea elkar ezagutzea eta ulertzea da, norbaitek zergatik pentsatzen duen bere seme edo alabarentzat onena gauza jakin bat dela ulertzea”. Horretarako, ezinbestekoa da “mundu garatuaren eta azpigaratuaren ikuspegia gure gaineratik kentzea”.

Baterako hezkuntza Euskadin: erronkak eta GKE-en eginkizuna

Ana Isabel eta Maria Silvestrek aho batez diotenez, “baterako hezkuntzak giltzarria izan behar du, zeharkakoa eta funtsezkoa”, lehenetsuzkoa administrazio guztientzat. “Ikasleek beren bizitza-ibilbidea, eta ibilbide akademikoa eta profesionala joera jakinik gabe aukeratzera bideratu behar ditu, aniztasuna kontuan hartuta”, eransten du Raquel Raposok. Horretarako, Beatriz Ugarteren ustez, ezinbestekoa da irakasleak prestatzea, etengabe “ezkutuko curriculumak bistartzen” lagunduko duten aukerak eskainiz. Haren iritziz, beharrezkoa da sexualitatea eta zaintzak lantzea, “patriarkatuaren esentzia ukitzen” dutelako, eta “gorputza aztertzearen” garrantzia azpimarratzen du; feminismoan oraindik gutxi landu den gaia da.

Ikastetxeek beren aldaketa-prozesua jarraitu behar dute, Fernando Oregik dioenez, “betiko bideek betiko lekuetara eramaten dutelako”. Begoña Garamendiren arabera, berriz, garrantzitsua da

“ikasleek hezkuntza-esparrua espazio segurutzat hauteman dezaten lortzea, guztiontzat den lekutzat”; izan ere, “une honetan, eskola gizon-emakume guztiona da, bai, baina batzuentzat bakarrik”.

Eginkizun horretan, Luisa M. Puertasek aitortzen duenez, “eskolak bakarrik ezin du”. Horregatik, beharrezkoa da familiak, ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak barnean sartzea, “guztion artean mundu desberdina eraikitzen joan behar” dugulako. Beatrizek adierazten duenez, eskola-esparrua gaintzea da kontua, “sarea egitea”, eta GKE-ek oso eginkizun garrantzitsua dute hor. Luisa Marik azaltzen duenez, kontua ez da programa jakin batekin edo material onekin etortzea; beharrezkoa da “ikastetxeko bizitzan parte hartzea, eta ikastetxeak GKE-ek gauzatzen dituzten beste jarduera solidario batzuetan parte hartzea”, gogoan izanez “eskola komunitate baten baitan sartuta dagoela”.

Fernando Oregik eta Ana Isabel Sanzek azpimarratu egiten dute ALBOAN bezalako GKE-ek egiten duten erreferentziako lana, prestakuntzako prozesuak eta kanpainak babestuz eta gizartean ikastetxeen eginkizuna proiektatzeko lankidetzan arituz. Ana Isabelen esanetan, “asmo handikoak izan behar dugu”, eta “mobilizazioa eta parte-hartze soziala indartu” behar da, eragile guztiak barnean hartuta, elkarren osagarri izan daitezkeen ezagutzak erabilita guztion helburua lortzeko, “batera egindako lan aberasgarriaren bidez”.

5. Ikasitako irakaspenak

Guatemalan eta Euskadin egindako elkarrizketak, kontsultatutako erreferentzia bibliografikoak eta baterako hezkuntzako jarduerak garatzen dituzten hainbat ikastetxetara egindako bisitak oinarri hartuta, ideia nagusi batzuk atera ditugu. Bi testuinguru horietan baterako hezkuntzaren gaur egungo egoerara hurbiltzeko aukera eman diguten ideiak dira:

- **Hezkuntza-agendan, hezkidetzak ez du presentzia handirik**

Hezkidetzak protagonismo txikia izan du bi testuinguruetakoko hezkuntza-agendetan. 1990eko hamarkadaren hasieran, batera hezteko zenbait esperientzia probatu ziren, eta nolabaiteko interesa piztu zuten, baina gutxituz joan zen. Azken urteotan, hezkidetzak alabora utzita egon da pixka bat, ez zaio lehentasunik eman.

- **Berdintasunaren ameskeria**

Euskadin eta Guatemalan hezkidetzak duen egoeraren diagnostikoak erakutsi digu “berdintasuna ameskeria” dela. Uste zabaldua da genero-berdintasuna lortutako zerbait dela, eta ez dagoela ezer egin beharrik arlo horretan. Azken hamarkadetan egindako aurrerapenak eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagozkion legeen ugaritasuna ikusita, badirudi iritsi garela helmugara, baina zenbait adierazle sozialek kontrakoa erakusten dute.

- **Lege asko ez dira iristen ikasgeletara**

Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko lege ugari ditugu, eta, hain zuzen, berdintasun-politikei dagokienez arautuen dauden arloetako bat hezkuntza da. Nolanahi ere, genero-berdintasunari legeek ematen dioten garrantzia ez dator bat baterako hezkuntzarako ikasgeletan duen presentziarekin. Berdintasun-legeak izatea ez da hartu behar helmugatza, baizik eta gizarte berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko abiapuntutzat.

- **Feminismoa eta genero-berdintasuna, estigmatizatuta**

Feminismoa modu negatiboan hartzen dute gizarteko hainbat sektorek. Kasu askotan, ezjakintasunak eragiten du ikuspegi negatiboa, eta militantzia horretan diharduten pertsonen buruzko aurreiritzi askok. “Berdintasunaren ameskeria” dela eta, askok uste dute feminismoa iraganeko kontua dela, eta duela zenbait hamarkada gairatutako testuinguru bati dagokiola.

- **Oso urruti gaude hezkidetzatik**

Eskola mistoak zabaltzeak aurrerapen handia ekarri du, aldaketa handiak eragin baititu, bai hezkuntzan, bai gizartean. Nolanahi ere, eskola mistoa eta hezkidetzak ez dira gauza bera. Eskola mistoa ezinbesteko urratsa da hezkidetzak lortzeko, baina ez da nahikoa. Ikasleak generoaren arabera bereizi eta curriculum desberdinak erabiltzen zituen eredu batetik eredu misto eta curriculum bakarrekora aldatzean, eskola maskulinoaren ereduak ekarri da eskola mistora. Ez dira elkartu aurreko eredu bereizitak; horren ordez, neskak sartu dira mutilen eskoletan. Mutiko eta neskatoak batera ibiltzen dira hezkuntza-espazio berean, baina eskola maskulinoen ereduak lehenesten da.

- **Zeharka lantzen da, baina baita modu espezifiko eta bereizian ere**

Hezkidetzak zeharka landu behar litzateke, hezkuntza-komunitate osoari eragin diezaion eta ikastetxeen kulturaren eta jardunbideetan modu integralean txerta dadin. Era berean, modu espezifikoan landu daiteke baterako hezkuntza, zeharka egiten dena indartzeko, bai talde mistoetan, bai bereizita, zenbait alderdiri dagokienez.

- **Baterako hezkuntzako berriazko prestakuntzaren beharra dago**

Berdintasunerako prestakuntzak askoz ere orokorragoa eta nahitaezkoa izan behar du irakasle guztientzat. Premiazkoa da irakasleek beren hezkuntza-praktikak aztertzea, askotan gerta baitaiteke, batere konturatu gabe, jarrera sexista jakin batzuk sendotzen aritzea. Irakasleak bizi garen gizartearen seme-alabak direnez, neurri handi batean gizarte matxistaren balioak eta jarrerak berregiten dituzte. Horren harira, irakasleek beren praktikak aztertu ahal izateko berriazko espazioak behar dituzte, beste modu batean ikusi, eta haietako batzuk beste era batera egiten ikasteko

- **Kontua ez da gehiago egitea, desberdin egitea baizik**

Hezkidetza lantzeko garaian irakasleek ikusten dituzten arazoetako bat lan-karga da. Hezkidetza lantzeko beste gai bat balitz bezala ikusten da, gainkarga gisa. Baina hezkidetza ez litzateke hartu behar lan-karga gisa, hezkuntzan egiten dugun lana modu kritikoa berrikusteko bide gisa baizik. Jakina, geure burua eta geure lana berrikusteak ahalegin handiagoa eskatzen du, baina ez lan-karga handiagoa.

- **Zer da gehien lantzen dena? Gehien ikusten dena**

Hezkidetzaren arloan, alderdirik ikusgaienak landu dira gehien, detektatzen errazena: hizkuntza inklusiboa, testu-liburuak, espazioak... Hurbilketa horri esker, ikusgarriago egin da batera hezteko ikastetxean, baina oraindik badaude zenbait alderdi lantzeko, hain erraz ikusten ez direnak: mikromatxismoak, mikroindarkeriak, sentimenduen kudeaketa...

Indarkeria matxistarena da interes berezia eragiten duen gai bat, Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean batik bat. Nerabearoan pizten dira gai horrekiko alerta-argiak, baina nabarmena da adin txikietatik hasten direla adierazpenak, ez hain larriak hasieran, eta haurtzarotik landu beharra dagoela.

- **Hezkidetza ezin da ikasgela barrura mugatu**

Hezkidetzaren erronka nagusietako bat hau da: familiak eta ingurune soziala hezkuntza-prozesu osoan txertatzea, hausturarik gerta ez dadin ikasleak ikastetxean bizi duenaren eta etxean bizi duenaren artean. Ezinbestekoa da hezkidetzako esperientziak familietan eta inguruko eragile sozialetan eragina izatea. Baterako hezkuntzako proiektua ez da eskola-ordutegira mugatu behar, eskoletako lau pareten artera: ezagutu bai, baina bizi ez dugun proiektua izango litzateke.

- **Ikastetxeetako zuzendaritzen beharrezko lidergoa**

Ikastetxe batean baterako hezkuntza zentroaren kulturako parte izan dadin, bultza egiteko garaian, ezinbestekoa da zuzendaritza lider izatea. Beharrezkoa da baterako hezkuntza ikastetxearen identitatearen parte izan dadin lortzea; eta, prozesu horretan, erabakigarria da zuzendaritza-taldearen eginkizuna.

6. Ondorioak

Guatemala eta Euskadi oso testuinguru desberdinak izanik, hezkuntza-esparruan bizitako ibilbidearen analisia egiteak badu zailtasunik. Hala ere, baliozko ikaskuntza-multzoa lortzeko aukera eman digu, eta baterako hezkuntzaren arloan gure lana bideratzeko balio izan digute ikaskuntza horiek.

Euskadiko eta Guatemalako hezkuntza-egoerak gizarte-errealitate oso desberdinen baitakoak direlarik, sarritan elkarrekin zerikusi txikia edo batere ez daukaten beharrei eta erronkei erantzuten diete. Hala eta guztiz ere, bi testuinguruek elementu bateratuak partekatzen dituzte:

- Baterako hezkuntzako protagonista nagusiak irakasle gizon eta emakumeak dira –azken hauek bereziki–, interes pertsonalik gabe horiek kemen osoz ahalegindu baitira beren hezkuntza-praktika eraldatzen, baterako hezkuntzan benetan oinarritutako eskolak eraikitzen joateko, zailtasun pertsonalak, sozialak eta instituzionalak aurrean izanda ere.
- Irakasleak eta hezkuntza-komunitate osoa prestatu ahal izatea da baterako hezkuntzak aurrera egiteko korapiloetako bat. Irakasle ikasketen barruko baterako hezkuntzari buruzko prestakuntza formalaz ari gara –ia horrelakorik ez dago Guatemalan eta oso puntuala da Euskadin–, lanean ari diren irakasleen prestakuntza osagarriari edo eguneratzeko prestakuntzari buruz, eta, batik bat, bizipenarekin, emakumeak eta gizonak garen aldetik zapaltzen eta mugatzen gaituen oro desikasteko aukerarekin lotuta dagoen prestakuntza horri buruz.

Hori kontuan izanik, ALBOAN erakundekook irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko dugun konpromisoa berriro dugu, lortu nahi dugun hezkuntza-motarako bidean elkarrekin aurrera egiteko: pertsonen garapen osoa bideratuko duen hezkuntza, gure neskak, mutikoak eta gazteak berdintasunean, zuzentasunean, elkarlanean eta zaintzan bizi daitezen lortzeko. Horrela, etorkizunean, gure mundu globalak behar duen eraldatze pertsonalarekin eta sozialarekin engaiatutako herritar bihurtu ahal izango dira.

Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da gure eskola-eredua berrikusten eta birpentsatzen joatea. Era horretan, sexismoa eta genero-arloko estereotipoak birstortzen jarraitzen duten sinesmenak eta praktikak uxatu ahal izango dira. Alderdi horiek oharkabean pasa ohi zaizkigu, egunerokoan erabat sustraituta daudelako, baina era kritikoa eta eraikitzailean ikuskatu behar dira. Alderdi horien baitan daude ikastetxearen antolamendua bera, curriculum akademikoa, ikasliburuak eta material pedagogikoak, irakaskuntzako metodologiak, irakasleen jarrerak eta itxaropenak, hizkuntza, espazioak kudeatzea...

Gure lana kritikoki aztertzea eta birpentsatzea ez da lan erraza, eguneroko ahalegina eta hezkuntzako eginkizunarekin konpromiso irmoa eskatzen baititu. Gainera, gizon-emakumeen artean berdintasuna lortzeko bidean eskuratutako garaipenek “berdintasunaren ameskeria” moduko zerbait eragin dute, eta, horren eraginez, sexismoaren alderdi fin eta sakonagoak ikusezin bihurtu dira. Edonola ere, zalantzarik gabe, ahaleginak merezi du: baterako hezkuntzak laneko aukera-multzo berria eta zabala irekitzen digu. Orobat, aukera ematen digu gurekin elkarlanean aritzen diren ikasgeletan eta taldeetan aurkitu ohi ditugun arazoetako asko ulertzeko eta haiei erantzuteko. ALBOANek bidelagun izan nahi du ahalegin horretan, eta, lanabes zehatzekin, benetan baterako hezkuntzako izango den eskola eraikitzen lagundu nahi du.

Bukatzeko, hezitzaile gizon-emakumeen eginkizuna azpimarratu nahi genuke. Izan ere, nork bere militantziaren bitartez, oro har laguntzarik eta aitortzarik gabe, erresistentzia gogorrei aurre eginez, haiek gorpuztu dituzte lan honetan jasotako ikasgai baliotsuetarako oinarri izan diren baterako hezkuntzako esperientziak eskoletan eta taldeetan. ALBOAN erakundekook gure eskerrik beroena eman nahi diegu, urtez urte baterako hezkuntzaren garra bizirik mantendu dutelako, eta, oroz gain, aurrera jarrai dezaten animatu nahi ditugu. **Eskerrik asko! Maltiox!**

7. Baliabide bibliografikoak eta sare-baliabideak

Publikazioak

ARARTEKO. (2009). "Adingabekoei balioak transmititzea". Vitoria-Gasteiz: Ararteko. Online: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1703_1.pdf

COMISIÓN PARITARIA DE REFORMA EDUCATIVA –COPARE- (1998): "Diseño de Reforma Educativa", Guatemala, COPARE.

EMAKUNDE. (2005). "Hezkidetza Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak". Vitoria-Gasteiz: Emakunde. Online: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/informe.21.coeducacioncapv.eus.pdf

EUSKO JAURLARITZA. (2013). "Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana". Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Online: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf

MELENDEZ, L.A. (2006): "*La educación en Guatemala 1954-2004, enfoque histórico- estadístico*", Guatemala, Universidad de San Carlos de Guatemala.

MONZÓN, A.S. (2001): "*Rasgos históricos de la exclusión de la mujeres en Guatemala*", Cuadernos de Desarrollo Humano, Guatemala, PNUD.

PNUD (2000): "Guatemala: la fuerza incluyente del desarrollo humano. Informe nacional de desarrollo", PNUD. Online: <http://desarrollohumano.org.gt/content/informes-nacionales-1>

SIMÓN RODRÍGUEZ, M. E. (2010) "La igualdad también se aprende. Cuestión de coeducación". Madrid: Narcea.

SUBIRATS MARTORI, M. (1994). "Conquistar la igualdad: la coeducación hoy", Revista Iberoamericana de Educación, nº 6, Género y Educación. Online: <http://www.rieoei.org/oeivirt/rie06a02.htm>

Legedia y dokumentu nazionalak

Currículum Nacional Base de Guatemala, disponible en: <http://www.mineduc.gob.gt/DIGECUR/>

Ley Nacional Educación Guatemala, Decreto Gubernativo 12-91, disponible en: http://www.mineduc.gob.gt/estadistica/2010/data/Conozcanos/Ley_Educacion_Nacional.pdf